

BALIABIDEAK

TragOk negozioan hainbat baliabide nagusi behar ditugu funtzionatzeko eta balio-proposamena modu eraginkorrean eskaintzeko. Baliabide horiek lau kategoria nagusitan sailkatu ahal ditugu: baliabide fisikoak, intelektualak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak.

Negozioaren oinarri fisikoa edalontziak berak dira, substantzia kaltegarriak detektatzeko sistema barne hartzen dituzte.

TragOk proiektua aurrera eramateko, baliabide fisikoak funtsezkoak izango dira, batez ere edalontziaren teknologia osatzen duten elementuak. Gure edalontzi adimenduak chip txiki integratua izango dute, edaria une errealean aztertzeko eta substantzia arriskutsuak detektatuz gero erabiltzaileari ohartarazteko. Chip honek sentso kimikoak eta seinale-bisualak koordinatuko ditu, erabiltzaileak egoera argi ikusteko.

Horrez gain, edalontziak plastiko birziklatuz egingo dira, sendoak eta berrerabilgarriak izan daitezten. Horrek jasangarritasuna bermatzen du eta gure produktuaren filosofiarekin bat dator: segurtasuna eta ingurumenaren zaintza uztartzea. Chipa babesteko eta ongi funtzionatu dezan, edalontziaren egiturak konpartimentu txiki bat izango du barruan, kanpoko kolpeek edo garbiketek funtzionamendua ez dezaten kaltetu.

Baliabide fisikoetan sartzen dira, adibidez, produkzio-makineria, moldeak, muntaketa-sistemak eta edalontziak gordetzeko eta banatzeko behar den azpiegitura fisikoa. Hauek guztiek ahalbidetuko dute produktua modu eraginkorrean ekoitzi, probatu eta bezeroei helaraztea.

Lehenengo eta behin, gure edalontzi adimendunak funtzionatzeko behar dugun ezagutza tekniko aipatu behar da: sentsoreek nola detektatzen duten substantzia arriskutsuren bat, chipak nola erreakzionatzen duen eta argi-seinalea nola pizten den. Hau guztia gure "jakintza berezia" da, eta horri esker funtzionatuko du produktuak.

Horrez gain, patentak eta diseinuak ere baliabide intelektualetan sartzen dira. Hau da, edalontziaren sistema edo itxura berezia babestea, beste inork berdina kopiatu ez dezan. Halaber, aplikaziorik edo bestelako sistema digitalik badugu, horren diseinua eta kodea ere gure jabetza izango litzateke.

Bestalde, TragOk marka bera ere oso baliotsua da: izena, logotipoa, koloreak eta transmititu nahi dugun mezua. Honek guztiak laguntzen du jendeak gure produktua ezagutzen eta konfiantza izaten.

Azkenik, proiektua ondo eramateko behar ditugun prozedura eta informazioak ere baliabide intelektualak dira: nola egiten diren probak, zein pausu jarraitu behar diren ekoizpenean, eta bezeroek zer behar duten jakiteko bildutako datuak.

TragOk-en giza baliabideak beharrezkoak dira proiektuaren arrakastarako, izan ere, gure produktua ez da soilik edalontzi bat; jendearen osasuna dago atzean, lan egin eta ideia guztiak errealitate bihurtzen dituen.

Lehenik eta behin talde teknikoa eta sortzailea behar dugu: ingeniariak chipa eta sentsoreak garatzeko, diseinatzaileak edalontziak erabilgarri eta erakargarri egiteko, eta programatzaileak softwarea edo aplikazioa prestatzen laguntzeko.

Bestetik, produktuaren ekoizpenean eta muntaketan lan egiten duten langileak ezinbestekoak dira. Haiek arduratzen dira edalontziak ondo osatzeaz, kalitatea mantentzeaz eta bezeroengana helarazteaz. Gainera, kalitate-kontrola eta probak egiteko taldeak ere behar ditugu, edalontzi bakoitza behar bezala funtzionatzen duela ziurtatzeko.

Salmenta eta marketin taldeak ere oso garrantzitsuak dira. Hauen lana jendeak TragOk ezagutzea eta gure mezua transmititzea daukate helburu nagusi gisa. Horretarako, gure marka festibalean eta ekitaldi publikoetan ere aurkeztu behar dugu, bertako langileak izan daitezke gure edalontziak erakusten, erabiltzaileei azaltzen nola funtzionatzen duten eta zer abantaila duten. Haien lana oso garrantzitsua da, bezeroekin harreman zuzena izatea eta gure produktua modu atseginean aurkezteko. Hau da, bezeroekiko gertutasuna oso garrantzitsua da.

Horrez gain, negozioaren funtzionamendu mantentzen duten pertsonak ere behar ditugu: administrazioa, logistika, finantzak eta bestelako kudeaketa lanak egiten dituztenak. Haien ekarpenak dira enpresa egonkorra izateko eta proiektuak modu eraginkorrean aurrera egiteko.

Azkenik, talde guztiak koordinazioa, sormena eta konpromisoa behar du. Bakoitzak bere lana ondo egiteaz gain, elkarrekin lan egin behar du, ideiak partekatu, arazoak konpondu eta proiektua arrakastaz aurrera eramateko. Giza baliabide hauek direla-eta, TragOk ez da soilik edalontzi bat; esperientzia bat da, jendeak sentitzen duen segurtasuna eta gure balioak transmititzen dituen.

TragOk proiektua martxan jartzeko ezinbestekoak dira finantza-baliabideak, hau da, dirua eta aurrezkiak, produktua garatu, ekoiztu eta merkaturatu ahal izateko. Aurrezki hauek gure "motorra" dira: haiek gabe ez litzateke posible izango chip-a garatzea, edalontziak fabrikatzea edo gure marka ezagutaraztea.

Aurrezkiak erabiltzen dira hainbat gauza egiteko: materialak erosteko, hala nola plastiko birziklatuak edalontziak egiteko eta sentsoreak integratzeko behar diren piezak; makineria eta muntaketa-lanak finantzatzeko; eta logistika mantentzeko, hau da, produktuak gordetzeko, probatzeko eta bezeroengana bidaltzeko.

Gainera, aurrezkiak erabiliko ditugu marketin eta salmenta ekintzetarako, adibidez, festibalean stand-ak edo postuak jartzeko, langileak bertan edukitzeko eta jendeak produktua bertatik probatu eta ezagutzeko akuera izateko. Honek marka ezagutarazteko eta bezeroekin harreman zuzena izateko oso lagungarri da.

Halaber, finantza-baliabide hauek ere baliagarriak dira ikerketa eta garapenerako, chip-aren teknologiak hobetzeko eta etorkizunean produktu berriak sortzeko. Aurrezkiekin, proiektua arrisku txikiagoarekin garatu dezakegu, eta aldaketak egiteko eta hobekuntzak egiteko prest egon gaitezke. Hau da aurrezkiekin, seguruago eta marjen handiagoa izango genuke.

Laburbilduz, aurrezkiak eta finantza-baliabideak dira TragOk-en oinarria: produktua sortzeko, merkaturatzeko eta etorkizunean hazteko beharrezkoak diren baliabide guztiak biltzen dituzte. Dirua ondo kudeatuta, proiektua jasangarria eta arrakastatsua izan daiteke.

TragOk funtzionatzeko eta gure balio-proposamena modu eraginkorrean eskaintzeko, hainbat baliabide nagusi behar ditugu. Hauek lau kategoriatan bana daitezke: fisikoak, intelektualak, giza eta finantza-baliabideak.

Produkua bera da gure baliabide fisikorik garrantzitsuena: edalontzi adimenduak chip txiki batekin, sentsoare kimikoekin eta argi-seinaleekin. Edalontziak plastiko birziklatuaz eginda daude, berrerabilgarriak eta jasangarriak. Horrez gain, ekoizpen-makineria, moldeak, muntaketa-sistemak eta biltegi-logistika bezalako azpiegitura fisikoak ere behar ditugu, produktuak modu eraginkorrean ekoitzi, probatu eta bezeroei helarazteko.

Baliabide intelektualetan sartzen dira gure ezagutza teknikoa, patentak, diseinuak eta softwarea. Edalontziaren detekzio-sistemaren funtzionamendua eta chiparen